BIZKAIKO ONDARE HISTORIKOA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Urrutia txaleta (Udaletxea) (Güeñes)

Urrutia txaleta *Llana de Arenaza* deritzon bi hektareako finka batean dago, Gueñesko Estación del Campo kalean (gaur egun, Enkarterri kalea). Emiliano Pagazaurtundua arkitektoak egin zuen 1910ean, Bigarren Inperioa zeritzon estiloan, ezaugarri modernistekin, Urrutia familiak uda bertan igarotzeko. Txalet hori *indianoen arkitektura* deritzonekoa da; izan ere, horren sustatzailea izandako Leandro Urrutia (Galdamesen jaioa) Mexikon nekazaritza negozioei esker aberasturiko indianoa izan zen.

Pagazaurtundua ez da arkitekto oso ezaguna Bizkaiko panoramaren barruan, oso lan onak egin bazituen ere, batez ere bi erregistrotan: eklektizismoa eta *beaux arts* zeritzona. Batik bat Santurtzin eta Portugaleten egin zuen lan, eta azken udalerri horretako udal arkitektoa izan zen. Bere lanen artean, honako hauek aipa daitezke: Santurtziko Udaletxea 1905ean, Portugaleteko Dueñas hotela 1901ean (berritua) eta Portugaleteko musika kioskoa 1912an.

Frantziako eragina agerian jartzen da, bigarren solairuan terraza bihurtzen diren alboko tribunen erabileran; fatxada nagusiko arku hirukoitzeko galerietan; hiru dimentsioko konposizioan; sarbidearen sustapenean, sotoak sorturiko desnibela gainditzeko beharrezko eskailera inperialarekin, eta eraikinaren inguruko terrazan (solairu nagusian). Modernismoa, beste alde batetik, kofaduretako lerro kurboetako molduretan oinarritzen da (horiek *art nouveau* gogora dakarten landare apaindurak dituzte), baita balkoietako burdinerietan (kataluniar eraginpeko forma biribilekoak) eta gailurrerian ere (Vienako eraginpekoa).

Barruko diseinua, bestalde, akabera bikaineko Espainiako Errenazimentu berriko da eta hori honako leku hauetan aplikatzen da: hormetako panelatuetan, jantokiko altzarietan, atondoko kasetoiduran, bigarren solairurako sarbideko atean eta gela publikoetako ateetan. Eskaileren gorputzeko beirateak Amadeo Depritek egindakoak dira; ezaugarri modernistako diseinu klasizistadun marrazki bikaina dute.

Egoitzaren programa garapen zabalekoa da, lau maila baititu: sotoa etxeko instalazioetarako, solairu nagusia alde publikorako, eta beste bi solairu erabilera pribaturako, jabeena lehen solairuan eta zerbitzariena bigarren solairuan.

Behe solairua hiru ardatzetan antolaturik dago: erdikoan atondoa dago, kanpoko nahiz barruko zirkulazioek bat egiten duten lekua baita. Beste hormarteetan jantokia (gaur egun, alkatearen bulegoa), zerbitzuko langileen eremua (komunarekin), konfiantzako gela, aretoa, bulegoa eta billarreko gela zeuden.

Jauregiaren inguruan Ingalaterrako estiloko lorategi handia dago; bertan, pergola, lorazainaren etxea, txakurren lekua, urmahela eta abar daude. Horrek guztiak indianoen arkitekturaren luxua uzten du agerian.

Gueñesko Udaletxea Urrutia txaletean instalatu zen 1974an, Garay-Llaguno familiak egindako lagapenari esker. Eginkizun berrira egokitzeko, Udalak urte horretan bertan berritu zuen; horretarako, behe solairuko eskuinalde osoa bota egin zen, bertan udal bulegoak ipintzeko; bigarren solairua ere berritu egin zen, bertan bi etxebizitza instalatzeko, eta jauregiaren inguruko burdinsarea saldu egin zen.

Testua: Gorka Pérez de la Peña.

Urrutia txaleta (Udaletxea)

Gueñes. *(Enkarterri, 5. Gueñesko administrazio gunean).*

Bisitak egiteko ordutegia:

Lanorduetan ikus daiteke.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Gueñes)
- Andre Maria eliza.
- La Quadra-Salcedo jauregia.
- Hurtado de Saracho jauregia.

(La Quadra-Gueñes)
- La Quadra dorrea.

(Sodupe)
- Farmazia.
- Romarate dorrea.
- San Bizente eliza.